


Hasiera / LITERATURA / "Euskal Kantagintza Berria" lana, berriz kalean

## LITERATURA

# "Euskal Kantagintza Berria" lana, berriz kalean

2020-05-21



Gaur, maiatzak 21, 11:00etan, Pako Aristik eta Iñaki Aldekoak, **Erein** argitaletxeko YouTubeko kanalaren bidez, Pako Aristiren, *Euskal Kantagintza Berria* streaming bidezko aurkezpena egingo dute.

Argitaletxeak berak luzatu digu liburu eta idazle haren hasierako urratsak: "1985eko martxoan Erein argitaletxeak kazetari gazte baten lehen nobela argitaratu zuen, *Kcappo Tempo Di Tremolo*. Pako Aristi deitzen zen, Kazetaritzako karrera ikasten ari zen, baina ordurako argitaratuak zituen hainbat egunkaritan erreportajeak eta elkarrizketak. Lehen nobela hura bere bataioa izan zen idazle gisan. Kritika onak jaso zituen, liburu erruz saldu zen eta argitalpen ugari izan ditu geroztik. 35 urte hauetan emankorra izan da Aristiren ibilbidea genero askotan.

Bere bigarren liburu eman zuen argitara Ereinek, *Euskal Kantagintza Berria*. Saiakera periodistiko moduan aurkeztua izan zen. Bertan jaso zituen euskal kantagintzaren hastapeneko lehen 25 urteak, 1961ean Michel Labegueriek kantagintza berria inauguratu zuen lehen disko txiki hura argitaratu zuenetik. Urte askotan agorturik egon da *Euskal Kantagintza Berria*, baina ez du galdu bere erreferente izateko gaitasuna, artikulu eta liburu anitzetan aipatua izan da, eta etorkizuneko ikerlarietzat ezinbestekoa bilakatu da."

Pako Aristik ere honela gogoratzen ditu garai haiek: "20 urte neuzkan, munduko ilusio guztia eta lanerako gogoia, euskal kantagintzari buruzko liburu bat egitea proposatu zidatenean. Ia 25 urte ziren Mixel Labegueriek lehen diskoa atera zuenetik, euskal kantagintzak sozialki eragin handia zeukan, gure kultura-oinarri sendonetakoa zen, kantari berriak aurrekoen transmisioa bermatzera zetozen, eta egoera dinamiko horren argazki bat egin nuen liburu honen bitartez".

*Euskal Kantagintza Berria* hiru zutabe ditu: euskal musikan protagonista zirenekin elkarrizketak, prentsako informazioa, eta dena biltzen duen fikzio bat. Protagonista ugari daude orriotan, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Oskorri, Imanol eta abar luzea. Bai eta anekdota eta pasadizo asko ere, garai hura ederki metaforizatzen dutenak.

Gaur goizeko aurkezpena ikusteko esteka, [honakoa](#) duzue.

Partekatu

### Gure Twitter

- "Argazkiratu" argazki-lehiaketa, Barakaldon [@barakaldo\\_eus](https://t.co/wJ2NwemGA) <https://t.co/DWcVmu3PN0> Duela ordu 1
- "Munduko Poesia Kaierak" bildumak Forugh Farrokhzad eta June Jordan poeten antologiak bildu ditu... <https://t.co/r34TbIBjP> 2020/05/22
- Euskara-teknikari eta trebatzaileen prestakuntzarako ikastaroa Labayrun [@labayrnfundazio](https://t.co/dgPWww0IFK) <https://t.co/99Wrb30o6G> 2020/05/22

Jarraitu Twitter-en

### Gure Facebook

Nontzeberri Kultura sar...  
1,784 likes

Like Page Share

### Azken Albisteak

- "Argazkiratu" argazki-lehiaketa, Barakaldon 2020-05-25
- "Munduko Poesia Kaierak" bildumak Forugh Farrokhzad eta June Jordan poeten antologiak bildu ditu 2020-05-22
- Euskara-teknikari eta trebatzaileen prestakuntzarako ikastaroa Labayrun 2020-05-22
- "Kulturunea" programak makina bat kontzertu haizatuko ditu streaming bidez 2020-05-22

- Baluartek "KmZero Musik Fest" abiatuko du gaur
- Henry D. Thoreau-ren "Desobediencia zibila", Booktegi plataforman

### Antzeko artikulak

- "Munduko Poesia Kaierak" bildumak Forugh Farrokhzad eta June Jordan poeten antologiak bildu ditu 2020-05-22 77
- Literaturaz eta bizitzaz 2020-05-21 75
- Henry D. Thoreau-ren "Desobediencia zibila", Booktegi plataforman 2020-05-21 63

### Utzierantzuna

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko.

Izena

E-posta

Webgunea

Bidali hruzkina

### Gehien ikusitako albisteak

- "Zirelako", giza eskubideei buruzko film laburren erakusketa 2020-05-25
- "Argazkiratu" argazki-lehiaketa, Barakaldon 2020-05-25
- "Munduko Poesia Kaierak" bildumak Forugh Farrokhzad eta June Jordan poeten antologiak bildu ditu 2020-05-22

### Aldatutako azken albisteak

- Argazki-lehiaketa
- Argazki-lehiaketa
- Argazki-lehiaketa
- Argazki-lehiaketa
- Argazki-lehiaketa
- Argazki-lehiaketa
- Argazki-lehiaketa
- Argazki-lehiaketa
- Argazki-lehiaketa
- Argazki-lehiaketa

Laster gure buletina...